

Urteko 6. Igandea (B)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Legenarena bakarrik biziko da, kanpalekutik aparte.

Lebítarrena liburutik 13, 1-2. 44-46

Honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni:

- «Norbaiti larruazalean handitua, zornea edota orbaina ateratzen bazaio, legenarena bezalako zauria sortuz, Aaron apaizarengana edo beronen ondorengoetariko apaiz batengana eramango dute.

«Legenak jota dago gizona; kutsatuta dago eta hala aitortuko du apaizak buruan duen gaitzarengatik.

«Legenak jotako gizonak arropak urratuak eramango ditu, ilea harro eta aurpegia erdi estalirik, eta "Kutsatua! Kutsatua!" oihu eginez ibiliko da. Gaitzak alde egin arte kutsatua izango da eta bakarrik biziko, kanpalekutik aparte.»

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 31, 1-2. 5. 11 (J.: cf. 7)

R.

Zu niretzat babesleku:

askapen-kantaz inguratzen.

Zoriontsua Jainkoak hobena kendu eta
bekatua barkatu diona!

Zoriontsua Jaunak errurik egozten ez diona
eta bere barruan makurkeriarik ez duena! **R.**

Orduan, aitortu nizun bekatua,
ez nizun gorde errua.

Hobenak zuri aitortzea erabaki nuen, Jauna,
eta barkatu zenizkidan erru eta bekatuak. **R.**

Poztu eta alaitu Jaunarekin, zintzoak!

Egin poz-oihu, bihotz zuzeneko guztiok! **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Egin zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 10,31-11,1

Senideok, nolanahi ere, nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egin, egizue dena Jainkoaren aintzarako.

Eta ez izan erorbide ez juduentzat, ez jentilentzat, ez eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei atsegin ematen saiatzen naiz gauza guztietan eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, salba daitezen.

Egin zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Jaunak esana.

Aleluia Lk 7,16

Aleluia. Aleluia.

Profeta handi bat sortu da gure artean.

Jainkoa bere herria salbatzera etorri da. Aleluia.

EBANJELIOA

Alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45

Denbora haietan, legendun bat etorri zitzaion erreguka, eta belauniko esan zion:

–Nahi baduzu, garbi nazakezu.

Errukiturik, Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez:

–Nahi dut, izan zaitez garbi.

Berehala alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz:

–Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Zoaz, hala ere, azaldu apaizarengana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten.

Hura, ordea, irten orduko, gertatu berria goraki hots egiten eta zabaltzen hasi zen. Eta harrezkero, ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, bazterretan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>